

Noiz eguneratua:
2021/08/26

NAFARROARAKO NEURRIAK

ALARMA-EGOERAREN ONDOREN

Irailaren 2ra arte.

COVID-19aren osasun-krisiari aurre egiteko
(**COVID-19A**)

Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua
Herritarren Arretarako Atala

AURKIBIDEA

1. Neurri eta berritasun nagusien laburpena

2. Maskararen erabilera

3. Mugikortasuna

- Etixeratzeko agindua
- Konfinamendu perimetrala
- Bilerak eremu publikoan eta pribatuan
- Mugikortasunari buruzko beste galdera batzuk

4. Prebentzio neurri ezohikoak

- Ostalaritzako establezimenduak eta jatetxeak
- Diskotekak eta dantzalekuak
- Alkoholaren salmenta
- Turismoko ostatuak
- Elkarte gastronomikoak eta peñak
- Garraioa
- Haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak
- Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak eta bestelako ekitaldiak
- Hiletak eta beilak eta gurtza-lekuak
- Txikizkako merkataritza establezimenduak eta lokalak, eta jarduera eta zerbitzu profesionalekoak, jendearentzat irekita daudenak
- Hipermerkatuak, saltoki ertain eta handiak, merkataritza-gune edo merkataritza-parkeak, eta haien parte direnak
- Azoka txikiak
- Ekitaldietarako funtzio anitzeko espazioak dauzkaten establezimenduak
- Akademiak, autoeskolak, eta irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeak eta prestakuntza zentroak

- Kirol-jarduerak eta -instalazioak
- Igerilekuak
- Liburutegiak, artxiboak, erakustaretoak, monumentuak eta museoak
- Zinemak, antzokiak, auditoriumak, karpadun zirkoak, aire zabaleko esparruak eta antzeko guneak
- Biltzarrak egitea
- Topaketak, akziodunen eta elkargo profesionalen batzarrak, negozio bilerak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak
- Turismo-gidariak, eta turismo aktiboko eta naturako irteerak
- Haur eta gazteendako denbora libreko jarduerak
- Bingoak, eta joko- eta jolas-aretoak
- Kalejirak
- Azoketako atrakzioak
- Zezen plaza, esparru eta instalazioen jarduerak
- Herri bazkariak
- Adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzak

1 Neurri eta berritasun nagusien laburpena



Nafarroan ezartzen diren neurri hauek indarrean izanen dira uztailaren 30etik irailaren 2ra arte.

- [31/2021 Foru Agindua](#), abuztuaren 24koa, Osasuneko kontseilariak emana.
- [30/2021 Foru Agindua](#), abuztuaren 17koa, Osasuneko kontseilariak emana.
- [29/2021 Foru Agindua](#), abuztuaren 10ekoa, Osasuneko kontseilariak emana.
- [27/2021 Foru Agindua](#), abuztuaren 3koa, Osasuneko kontseilariak emana.
- [26/2021 Foru Agindua](#), uztailaren 27koa, Osasuneko kontseilariak emana.
- [25/2021 Foru Agindua](#), uztailaren 22koa, Osasuneko kontseilariak emana.
- [24/2021 Foru Agindua](#), uztailaren 19koa, Osasuneko kontseilariak emana.
- [22/2021 Foru Agindua](#), ekainaren 29koa, Osasuneko kontseilariak emana.

Maskararen erabilera

Aire zabalean

- Ekainaren 26tik aurrera, **ez da derrigorrezkoa izanen** maskara janztea, **baldin eta elkarrekin bizi ez diren pertsonen artean gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea badago.**
- Bizikideak maskararik gabe joaten ahalko dira, haien arteko distantzia soziala edozein dela ere.
- **Aire zabaleko ekitaldi jendetsuetan**, maskara jantzi behar da bertaratzen direnek, **zutik edo eserita egon, pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantendu ezin dutenean**, bizikide taldeak izan ezik.

Maskara erabili behar da:

- **bai erabilera publikoko eremu itxietan, bai jendearentzat zabalik dauden eremu itxietan.**
- **garraio bide publikoetan eta elkarrekin bizi ez diren pertsonen garraio pribatu osagarrietan (9 toki, gehienez).**

Ez da nahitaezkoa:

- adinekoei edo desgaitasun funtzionala duten pertsonari arreta emateko erakundeetako erabiltzaileentzat, ez eta funtsezko langileen egoitza kolektiboetan ere, baldin eta txertaketaren pautak osoa % 80tik gorakoa bada. Nahitaezkoa izanen da zentroetako langileentzat eta bisitariarentzat.

Mugikortasuna

- **Asteburuetan (ostiraletik larunbaterako eta larunbatetik iganderako gauetan), jaiegunetan eta udalerrietako zaindariaren jaiak izanen liratekeen egunetan (jaiegun bezperak barne direla), 01:00etik 06:00etara bitartean, COVID-19agatik oso handiko egoeran dauden udalerrietan dauden pertsonak ezin izanen dira Nafarroako Foru Komunitateko erabilera publikoko bide edo guneeetan ibili, jarduera jakin batzuk egiteko izan ezik.**
- Egiaztatu [Gobernu Irekiaren webgunean](#) etxeratzeko aginduak eragiten dizun, bizi zaren udalerriarren intzidentzia metatua 100.000 biztanleko 250 kasutik gorakoa izateagatik 14 egunean edo 125 kasutik gorakoa 7 egunean.
- **Konfinamendu perimetralak kenduta segitzen du.**
- **Bilerak:**
 - **Ez dago baimenduta 10 pertsonatik eta 3 bizikidetzaren-unitatetik gorako bilerak egitea eremu publikoan.**
 - Gomendatzen da gehienez hamar pertsona eta, guztira, hiru bizikidetzaren-unitate elkartzea eremu pribatuetan.
- **Manifestazioak:**
 - **Mugatzen, baldintzatzen edo debekatzen ahalko dira** igarobide publikoetan egiten diren bilerak eta manifestazioak, hots, Konstituzioaren 21. artikuluan araututako oinarritzko eskubidea

erabiliz egindakoak, **baldin eta ez bada bermatzen** kutsatzeak eragozteko behar den segurtasun-tartea sustatzaileek aurkeztutako **aldez aurreko jakinarazpenean**.

Prebentzio neurri ezohikoak

- **Erabilera publikoko establezimenduek** ahalik eta gehien aireberritu beharko dituzte lokalak, eta, betiere, **egunean hirutan gutxienez**.

Ostalaritzako establezimenduak eta jatetxeak:

- **Kontsumoa baimenduta dago barnealdean**
- **Irekitzeko bi aukera** daude:
 1. Baimendutako gehieneko **edukieraren % 60**, baldintza zehatz batzuk beteta.
 2. **Edukieraren mugarik gabe: mahaien arteko distantziak zehaztuko du edukiera**, eta baldintza zehatz batzuk bete beharko dira. Nahitaezkoa izanen da erantzukizunpeko adierazpena betetzea.

Barnealdeak 01:00ean itxiko dira beranduenez.

Baimendutako gehieneko edukieraren % 60 errespetatuta barnealdea irekitzen duten establezimenduak. Bete beharreko baldintzak:

- Kontsumoa **mahaian eserita** egin beharko da.
- Janari-edariak eskatzeko eta hartzeko bakarrik erabiliko dira barrak.
- **Mahaien arteko tartea: 1,5 metro**, mahaien ertzetik neurtuta.
- **Mahai bakoitzeko jende kopurua: sei, pertsonen artean 70 cm**-ko segurtasun-tartea bermatuta.
- **Gomendatzen da ahalik eta gehien aireztatzea eta airearen kalitatea neurtzea, CO₂-aren neurgailuen bidez.**
- **CO₂-aren kontzentrazioa 800 ppm-tik gorakoa denean, gomendatzen da aireztapena handitzea edo jende kopurua gutxitzea.**

- Informazio kartelak.

Edukieraren mugarik gabe barnealdea irekitzen duten establezimenduak. Bete beharreko baldintzak:

- Barnealdeko mahaien artean **1,5 metro egotea**.
- Mahai bakoitzean gehienez **6 pertsona egotea eta mahaikideen artean gutxienez 70 cm egotea**.
- Jantokiko lokalak **aireztapen egokia** izatea.
- **CO₂-aren neurgailua izatea, eta lokaleko CO₂-aren kontzentrazioa inoiz ez izatea 800 ppm-tik gorakoa**.
- **Trazabilitatea bermatzeko neurri egokiak hartuko dira bazkarietan eta afarietan**, behar denean bezeroekin harremanetan arin jartzeko.
- Kontsumoa **mahaian eserita** egin beharko da.
- Janari-edariak eskatzeko eta hartzeko bakarrik erabiliko dira barrak.
- **Bete erantzukizunpeko adierazpena tramiteen katalogoko hurrengo [fitxa](#)n**.
- Behin inprimakia eginda, establezimendua irekitzen ahalko da, administrazioaren egiaztapena/baimena jaso beharrik izan gabe.

Kanpoaldeko terrazak:

- **Irekiak.**
- **Ordutegia: udal ordenantzan edo lizentzian ezartzen dena; gehienez ere 01:00a arte.**

Iruñean, maiatzaren 1etik irailaren 30era arte:

- **Mahai eta aulki baxuak dituzten terrazak:** 09:00etatik biharamuneko 01:00era, eta aukera dago beste ordubete luzatzeko larunbat, igande eta jaiegunetan (udalaren onarpena behar da).
- **COVID-19aren araudiak baimendutako terrazak:** 23:00ak arte.
- **Mahai altuak eta upelak:** astelehen, astearte, asteazken eta igandeetan, 09:00etatik 22:00ak arte; ostegun, ostiral, larunbat eta jaiegunen bezperetan, 09:00etatik 23:00ak arte, eta aukera dago

beste ordubete luzatzeko maiatzaren 1etik irailaren 30era arte (udalaren onarpena behar da).

- **Mahaien arteko tartea: 1,5 metro**
- **Mahaian eta eserita eginen da beti kontsumoa**
- **Debekaturik dago erretzea**, zigarreta elektronikoak barne, edo nikotina bota dezaketen gailuak erabiltzea, **baldin eta ezin bada bermatu 2 metroko segurtasun-tartea. Bezeroei ez erretzea gomendatzen zaie.**
- **Mahai bakoitzaren bueltan**, gehienez ere, **hamar pertsona** egonen dira. Baldin eta pertsonen arteko **70 cm**-ko tartea bermatzen bada.
- **70 cm baino gutxiagoko aldea edo diametroa duten mahaien eta/edo upelen bueltan** gehienez ere bi pertsona egonen dira, eserita.

Diskotekak eta dantzalekuak

- Diskoteken eta dantzalekuen jarduera **baimentzen da, barreneko aldearen edukiera % 50 bete arte, gehienez.**
- **Mahaietan eserita kontsumituko da, mahai bakoitzean 6 lagun gehienez**, pertsonen artean 70 cm-ko tartea utzita, eta mahaien artean 1,5 metro.
- **Ez dago baimenduta dantzatzeko pista** edo horretarako prestatutako eremua **erabiltzea.**
- **Beranduenez ixteko ordua: 01:00a, lokalak jendez hustu ondoren.**

Establezimenduetan eta sektoreetan edukiera berriak.

Turismoko ostatuak

Hotelak eta ostatu turistikoak

- **Eremu komunetan, okupazioak ezin izanen du gainditu baimenduriko gehieneko edukieraren % 75.** Une oro gorde beharko da 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean.
- Kiroi-instalazioek (adibidez, igerilekuak eta gimnasioak) sektore horietarako berriazko neurriak aplikatu beharko dituzte.

Aterpetxeak

- Aterpetxeak: **ohatzeak (literak) dituzten logeletan** ezin bada pertsonen arteko gutxieneko tartea gorde, **okupazioa baimenduriko gehieneko edukieraren % 50** izatea baimenduko da.
- Pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-tartea bermatzea ahalbidetzen duten oheak dituzten logelak edo **logela bereziak dituzten aterpetxeetan, okupazioa baimenduriko gehieneko edukieraren % 75** izatea baimenduko da.

Elkarte gastronomikoak eta peñak

Irekitzen ahalko dira, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- Barnealdeko **edukiera baimendutako gehieneko edukieraren % 60** izanen da.
- **01:00ean itxiko dira**, hau da, ostalaritzako establezimenduen eta jatetxeen barnealdeak itxeko duten ordutegi bera izanen dute.
- **Debekatua dago** barnean erretzea.
- **Mahaian eta eserita egingen da beti kontsumoa.**
- **Maskara erabiltzea nahitaezkoa izanen da, salbu eta edateko edo jateko unean.**
- **Mahaien arteko tartekak 1,5 metrokoa izan behar du**, mahaien ertzetik neurtuta.
- **Mahaiaren edo mahaien inguruan ezin izanen dira sei pertsona baino gehiago elkartu**, eta bermatuta egonen da 70 cm-ko segurtasun-tartea pertsonen artean.
- **Informazio kartelak** paratuko dira
- Ahal dela, **gomendatzen da lokalek aireztapen naturala izatea**, edo artifizial mekanikoa, airearen birzirkulaziorik gabe. **Gomendatzen da**, halaber, **ahalik eta gehien aireztatzea eta airearen kalitatea neurtzea, CO₂-aren neurgailuen bidez**. CO₂-aren kontzentrazioa 800 ppm-tik gorakoa denean, gomendatzen da aireztapena handitzea edo jende kopurua gutxitzea.
- **Gel hidroalkoholiko edo desinfektatzaileak** paratuko dira.

- **Edukiera kontrolatzeko sistema bat izan beharko da, lokalean sartzen diren pertsonak zenbatzeko. Ezin da gainditu lokaleko edukieraren % 60.**
- Lokal horiek **ireki baino lehen**, erantzukizunpeko adierazpena edo aktaren kopia igorri beharko dute Osasun Departamentura, osasun arloan indarrean dagoen araudia betetzeko konpromisoaren akordioa adierazten duena. Helbide elektronikoa honetara igorri behar da dokumentazio hori: comunicaciones.sgtsalud@navarra.es.
- Beren lokaletan egiten diren jardueretan **beteko da** Osasuneko kontseilariaren foru aginduetan, **jarduera bakoitzerako atalean, xedatutakoa.**

Aisialdiko etxabeak eta piperok: itxiak

Iruñerriko bidaiarien hiri-garraio erregularra

- Ireki daitezkeen **leihatilak** izanez gero, **guztiak irekita** egon beharko dute, airea ibil dadin. Gomendatzen da geldialdietan ibilgailuaren ate guztiak irekitzea.
- Sarreran eta irteeran gel hidroalkoholikoaren banagailuak paratuko dira.
- Eserlekuen % 100. Zutik bidaiatuz gero, gehieneko okupazioa bi pertsonakoa izanen da metro koadroko.

Haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak

- Baimendutako gehieneko **edukieraren % 100.**
- Pandemiaren aurreko baimenak arautuko du ordutegia.

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak eta beste ospakizun sozial, familiar, erlijioso edo zibil batzuk

Ospakizunak

- Gurtza-lekuetako ospakizunetan **ezin izanen dira 400 pertsona baino gehiago elkartu**. Pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea errespetatu beharko da (hau da, 2,25 metro koadro pertsonako).
- Gurtza-lekuak ez diren lokaletan ospatzen direnen kasuan, pertsonen artean 1,5 metroko tartea errespetatu beharko da (hots, 2,25 metro koadro pertsona bakoitzeko) lokal horien barnean.

Zeremoniaren ondoko ospakizunak. Baldintzak:

1. Edukieraren % 60 errespetatuta barnealdea irekitzen duten establezimenduak:

- **75 pertsonako muga barnealdean eta 150 pertsonakoa kanpoaldean** + ezarritako neurriak betetzea.

2. Edukieraren mugarik gabe barnealdea irekitzen duten establezimenduak:

- 1,5 metro mahaien artean.

Bi kasuetan:

- muga hori establezimenduko ospakizun bakoitzari dagokio, ongi bereizitako eremuetan baldin badaude.
- **Ez dago baimenduta dantzatzeko pista erabiltzea.**

Hiletak, beilak, errausteak eta agur zibilak

- Gehienez ere **100 pertsona biltzen ahalko dira aire zabalean direnean, eta gehienez 25 toki itxietan**, hiletetan eta beiletan.
- Barnean egindako **errausteetan eta agur zibiletan**, gehieneko edukiera **% 50**ekoa izanen da, **eta gehienez 400 pertsona**.

Gurtza-lekuak

- Gurtza-lekuetan errespetatu beharko da **pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea** (hau da, 2,25 metro koadro pertsonako), eta **gehienez 400 pertsona**.

Txikizkako merkataritza establezimenduak eta lokalak eta jarduera eta zerbitzu profesionalekoak, jendearentzat irekita daudenak.

- Ezin izanen da gainditu **baimenduriko gehieneko edukieraren % 75**.
- Beranduenez ixteko **ordua** establezimendu mota horietarako ezarritakoa izanen da.

Hipermerkatuak, saltoki ertain eta handiak, merkataritza-gune edo -parkeak, eta haien parte direnak

- Ez dute gainditzeko ahalko bertan kokatutako merkataritza-lokal bakoitzean **baimendutako gehieneko edukieraren % 60**.
- Beranduenez ixteko **ordua** establezimendu mota horietarako ezarritakoa izanen da.

Ekitaldietarako erabilera anitzeko espazioak dauzkaten establezimenduak

- Ospakizunetan errespetatu beharko dira pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-tarteak gordetzeko neurriak eta ez da inoiz ere gaindituko edukieraren % 60. Halaber, ez dira behin ere 75 pertsona baino gehiago izanen barrualdean, eta 150 pertsona gehienez kanpoaldean.
- Debeku da dantzatzeko pista erabiltzea.
- **01:00ean** itxi beharko dute beranduenez.

Akademiak, autoeskolak eta irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeak eta prestakuntza zentroak.

- Jarduera **aurrez aurre ematen ahalko da**, baldin eta ez bada gainditzeko baimendutako **gehieneko edukieraren % 75 eta bermatzen bada 1,5 metroko segurtasun-tartea** pertsonen artean.

Zuzendutako kirol-jarduera fisikoak espazio itxietan

- **Gehienez 20 pertsonak osatutako taldeak.** Nafarroako Kirolaren Institutuak xedatutakoaren arabera arautuko dira.
- **25 pertsonako taldeetan** egiten ahalko dira, baldin eta instalazioak **parte-hartzaileko 5 metro koadroko** baldintza betetzen badu, **mugikortasun txikiko jardueretan**, eta **parte-hartzaileko 16 metro koadrokoa, mugikortasun handiko jardueretan**, aireztapen naturala erabiliz, edo behartua (mekanikoa), airearen birzirkulaziorik gabe.

Aisialdiko igerilekuak

- Edukieraren **% 75eko muga** gorde beharko da, hala haietara sartzeko nola aisialdiko jardueretan bertan.
- Baimenduta dago **banakako aldagelak eta dutxak** erabiltzea; **kolektiboak, aldiz, % 50ean** erabiliko dira.
- **Berdeguneetan** gehienez ere egon daitezkeen pertsonen kopurua honela kalkulatzeko da: **pertsonako 4 metro koadro**.
- **Igerilekuak 22:00etan itxiko dira beranduenez.**

Liburutegiak, artxiboak, monumentuak, erakustaretoak eta museoak

Liburutegi publiko eta pribatuak:

- Ezin izanen da **gainditu baimendutako gehieneko edukieraren % 75**.
- Liburutegi eta ludoteketan **haurrentzako jarduerak** egiten ahalko dira, **gehienez ere hogeitaideko taldeetan**, haien adinaren arabera.

Titulartasun publiko edo pribatuko artxiboak

- Ezin izanen da **gainditu baimendutako gehieneko edukieraren % 75**.

Monumentuak, erakustaretoak eta museoak

- Ez da gainditzen ahalko baimendutako **gehieneko edukieraren % 75**, eta, nolana ere, ez da 350 pertsona baino gehiago egoten ahalko.

- Inaugurazioak eta ekitaldi sozialak egiten ahalko dira, baldin eta jatetxe zerbitzurik ez badago, eta segurtasun-tarteak bermatzen ahal badira. Edukiera % 75ekoa izanen da, eta jarlekuak aurretik esleituko dira. Jarduera zutik egiten bada, edukiera irizpide honi jarraikiz kalkulatu da: 3 metro koadro pertsonako.
- Bisita edo jarduera gidatuak **gehienez ere hemezortzi pertsonako** taldeetan egingen dira, **eta hogeita bostekoak izaten ahalko dira kanpoan direnean.**
- **01:00ean** itxi behar dute beranduenez.

Zinemak, antzokiak, auditoriumak, karpadun zirkoak, aire zabaleko esparruak eta antzeko guneak

- Eserlekuak aurrez esleitu beharko dira.
- Ezin dute gainditu baimenduriko **gehienerako edukieraren % 75**. Nolanahi ere, **gehienerako edukiera 350 pertsonakoa** izanen da gehienez barnealdean **eta 800 pertsonakoa**, berriz, aire zabalean.
- **Debeku da jatea eta edatea** ikuskizunetan. Hala ere, **zinema-aretoetan eta ikuskizunetarako kafetegien lizentzia duten establezimenduetan baimentzen ahalko da jatea eta edatea**, baldin eta **aretoek baldintza zehatz batzuk betetzen badituzte. Baldintza horiek bete ezean, debekatuta egonen da.**
- **01:00ean** itxiko dira beranduenez.

Topaketak, akziodunen eta elkargo profesionalen batzarrak, negozio bilerak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak

- Egin daitezke, baldin eta ez badute gainditzeko baimendutako **gehienerako edukieraren % 75 (gehienez ere, 350 pertsona, eserita)**, eta bermatzen bada pertsonen artean 1,5 metroko gutxienerako segurtasun tarteak egonen dela.

Turismo-gidarien jardura

- Jardura horiek, barnean zein kanpoan, ahal dela, **aldez aurretik hitzordua eskatuta** egingen dira eta **taldeak, gehienez ere, 18**

pertsonakoak izanen dira, barnean, eta 25ekoak, kanpoan. Taldeak 35 pertsonakoak izaten ahalko dira gehienez, elkarrekin bidaiatzen duten taldeen erreserbetan.

Turismo aktiboko eta naturako irteerak

- **25 pertsonako taldeetan egiten ahalko dira, aldez aurretik erreserba eginda,** enpresa edo gidari profesionalekin. Taldeak 35 pertsonakoak izaten ahalko dira gehienez, elkarrekin bidaiatzen duten taldeen erreserbetan.

Kanpaldiak eta zeharkaldiak

- **Etenda gelditzen dira abuztuaren 22ko [107/2005 Foru Dekretuak](#)** araututako **zeharkaldiak egiteko baimenak** (foru dekretu horren bidez arautu ziren Nafarroako Foru Komunitatean aire zabalean egiten diren gazteendako jarduerak).
- Aipatutako [107/2005 Foru Dekretuak](#) araututako **kanpaldiak egiteko baimenak emanen dira,** baldin eta baldintza hauek betetzen badira: **parte hartuko duten gazteak ez izatea 60 baino gehiago,** eta **monitoreen eta parte-hartzaileen arteko ratioa 1/8 edo txikiagoa izatea.**

Haur eta gazteendako denbora libreko jarduerak

- Edukiera: Edukiera osoaren **% 75,** eta gehienez **250 pertsona aire zabaleko** jardueretan.
- **Espazio itxietan,** edukiera osoaren **% 60,** eta gehienez **200 pertsona.**

Haurren aisialdirako lokalak

- **Burbuila taldeetan** jardunen da.
- **Debekatuta** daude **bola-kaiola** motako atrakzioak.

Zezen plaza, esparru eta instalazioen jarduerak

- Ikuskizunak **baimentzen dira gaitutako espazio eta lekuetan.**
- **Edukiera: Edukieraren % 75, eta jarlekuak aurretik esleituta.**
- **Ez da baimentzen zezen ikuskizun herrikoiak egitea**, hala nola **entzierroak, entzierro txikiak, basabereak libratzea** edo antzekoak bide publikoan.

Herri bazkariak

- **Ez dago baimenduta herri bazkaririk egitea.**

Kalejirak

- **Ez da segizioa duen kalejirarik baimenduko.**

Bingoak, eta joko-, apustu- eta jolas-aretoak

- **Irekiak.**
- Ezin izanen dute gainditu baimendutako gehieneko edukieraren **% 60**.
- **01:00ean itxiko dira.**

2 Maskararen erabilera

1. G- Nahitaezkoa da maskara janztea aire zabalean?

E- Ekainaren 26tik aurrera, **ez da derrigorrezkoa** maskara janztea aire zabalean, **baldin eta elkarrekin bizi ez diren pertsonen artean gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea badago.**

2. G- Bizikideak gara. Kalean maskara jantzi behar dugu, gure artean 1,5 metroko segurtasun-tartea ez badago?

E- EZ. Aire zabalean, ez da nahitaezkoa izanen bizikideek maskara erabiltzea, haien arteko distantzia soziala edozein dela ere.

3. G- Maskara hartu behar dugu etxetik irten baino lehen?

E- Bai. Ez ahaztu etxetik irten baino lehen maskara hartzea; izan ere, baliteke ondoren behar izatea.

4. G- Zer kasutan da nahitaezkoa maskara erabiltzea?

E- Sei urtetik gorako pertsonak nahitaez erabili behar dute maskara honako kasu hauetan:

- **Erabilera publikoko edozein espazio itxitan**, adibidez, osasun etxean, liburutegian eta abarretan.
- **Jendearentzat zabalik dagoen edozein espazio itxitan**, adibidez, dendetan, ostalaritzako establezimenduetan, hipermerkatuetan eta abarretan.
- Aire zabaleko edozein espaziotan, pertsonen pilaketa dela eta, **haien arteko gutxieneko distantzia ezin bada 1,5 metrokoa izan**, bizikide taldeak izan ezik.
- **Garraiobideetan:**
 - o hegazkinak, itsasontziak, autobusak, trenak (**nasak eta geltokiak barne**), eta teleferikoa.

- Bidaiarien **garraio publiko eta pribatu** osagarriei dagokienez, **bederatzi tokira arteko ibilgailuetan (gidaria barne), ibilgailuko bidaiari guztiak etxe berean bizi ez badira.**
 - **Ontzi eta itsasontzietako bidaiariei** dagokienez, ez da nahitaezkoa izanen maskara erabiltzea bidaiariak beren gelaren barnean daudenean eta itsasontziko aire zabaleko espazioetan daudenean, baldin eta 1,5 metroko segurtasun-tartea gordetzen ahal bada.
- **Aire zabaleko ekitaldi jendetsuetan**, bertaratzen direnek **zutik nahiz eserita pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantendu ezin dutenean**, bizikide taldeak izan ezik.

5. G- **Salbuespenik al dago maskara nahitaez ez erabiltzeko?**

E- Bai. Ez da eskatuko maskara janztea honako kasu hauetan:

- **Arnas eritasunen bat edo arnasa hartzeko zailtasunen bat**, maskararen erabilera larriagotu dezakeena, duten **pertsonak**, edo, **beren mendekotasun edo desgaitasun egoera dela eta, maskara kentzeko autonomiarik ez dutenak**, edo maskara erabiltzea bideraezina egiten duten jokabidearen nahasmenduak dituztenak.
- **Jardueren izaeragatik beragatik** maskararen erabilera **bateraezina bada**, osasun-agintarien jarraibideen arabera.
- Bertan biltzen diren **kolektiboen bizitokia osatzen duten** erabilera publikoko leku edo espazio itxietan, hala nola adinekoei edo desgaitasun funtzionala duten pertsonen arreta emateko erakundeetan, funtsezko langileen edo antzeko ezaugarriak dituzten beste kolektibo batzuen egoitza kolektiborako egoitzetan, baldin eta kolektibo horiek eta bertan lan egiten duten langileek % 80tik gorako txertaketa estaldura badute SARS-CoV-2ren aurka, osasun-agintaritzaren eskudunak egiaztatuta.

Azken salbuespen hori ez zaie aplikatuko kanpoko bisitariei, ezta adinekoei edo desgaitasun funtzionala dutenen egoitza zentroetako langileei ere.

- Presoen joan-etorria duten espetxeetako kanpoaldean nahiz espazio itxietan maskarak erabiltzeari dagokionez, espetxe-agintaritza eskudunak ezarritako arau espezifikoak bete beharko dira.

3 Mugikortasuna

Etixeratzeko agindua

6. G- Etixeratzeko aginduak indarrean jarraitzen du Nafarroan?

E- Oro har, ez; baina bai COVID-19agatik arrisku oso handiko egoeran dauden udalerrietan dauden pertsonentzat, udalerrien intzidentzia metatua 100.000 biztanleko 250 kasutik gorakoa izateagatik 14 egunean eta 125 kasutik gorakoa 7 egunean. **Egiatzatu [Gobernu Irekiaren webgunean](#) etxeratze aginduak zure udalerriri eragiten dion.**

Ez da ibiltzen ahal bide edo espazio publikoetan asteburuetan (ostiraletik larunbaterako eta larunbatetik iganderako gaueetan), **jaiegunetan eta udalerrietako zaindariaren jaiak izanen liratekeen egunetan** (jaiegun bezperak barne direla), **01:00etik 06:00etara bitartean.**

Gaueko mugikortasuna mugatzeko neurria aplikatu behar bada kontzejuak dituzten udalerrietan, zeinetan egun desberdinetan egiten baitira herriko festak; egun horietan festak zer kontzejutan egingen ziratekeen, hartan baino ez da aplikatuko neurri hori, ez udalerriko gainerakoetan.

7. G- Ba al da salbuespenik etxeratze aginduan?

E- Bai, honako **jarduera hauek** egiteko:

- Sendagaiak, osasun produktuak eta premia biziko beste ondasun batzuk erostea.
- Osasun etxe, zerbitzu eta establezimenduetara joatea.
- Larrialdiko arrazoiengatik albaitaritzako zentroetara joatea.
- Laneko, lanbideko, enpresako, erakundeetako edo lege arloko betebeharrak betetzea.
- Ohiko bizilekura itzultzea, apartatu honetan ezarritako jardueretako batzuk egin ondoren.
- Adinekoei, adingabeei, mendekotasuna dutenei, desgaitasuna dutenei edo bereziki kalteberak direnei arreta ematea eta haien zaintzea.
- Gasolindegietan edo erregai-zerbitzuguneetan depositua betetzea, jarduerak egiteko beharrezkoa denean.
- Ezinbesteko edo premiazko kasuetan.

- Antzeko beste edozein jarduera egitea, behar bezala egiaztatuta.

Konfinamendu perimetrala

8. G- Konfinamendu perimetralak indarrean jarraitzen du Nafarroan?

E- Ez.

Maiatzaren 9tik aurrera, konfinamendu perimetrala kendu zen. Baimenduta dago pertsonak Nafarroara libreki sartu eta bertatik ateratzea.

Bilerak eremu publikoan eta pribatuan

9. G- Zenbat pertsona bil gaitezke kalean edo bilera pribatu batean?

E- Eremu publikoetan, ez daude baimenduta bizikideak ez diren hamar pertsonatik eta hiru bizikidetza-unitatetik gorako bilerak, pertsona horiek bizikidetza-unitate bakar batekoak direnean izan ezik.

Eremu pribatuetan, gomendatzen da bilerak hamar pertsonakoak eta hiru bizikidetza-unitatekoak izatea gehienez ere, salbu eta pertsona horiek bizikidetza-unitate bakar batekoak badira.

Manifestazioak

10. G- Manifestazioak mugatu edo debekatu daitezke?

E- Mugatzen, baldintzatzen edo debekatzen ahalko dira igarobide publikoetan egiten diren bilerak eta manifestazioak, hots, Konstituzioaren 21. artikuluan araututako oinarritzko eskubidea erabiliz egindakoak, **baldin eta ez bada bermatzen kutsatzeak eragozteko behar den segurtasun-tartea sustatzaileek aurkeztutako alde aurreko jakinarazpenean.**

Mugikortasunari buruzko beste galdera batzuk

11. Kale zurruta baimenduta dago?

E- Ez.

Debekatuta daude alkohola kontsumitzeko bizikidetzatopaketak eta aisialdiko ospakizunak ("kale-zurruta" eta antzekoak) bide publikoan, parkeetan eta plaza publikoetan eta jendea dabilen beste toki batzuetan.

12. G- Bidaiatzen ahal dugu elkarrekin autoz, furgonetaz eta abarrez bizikideak ez garenok?

E- Bai. Baina beharrezkoa da garbitasun neurri guztiak betetzea, maskara erabiltzea (bizikideak ez badira), eta maiz aireztatzea.

13. G- Kanean erre daiteke?

E- Kanean, eserlekuetan, ostalaritzako terrazetan, espazio publikoetan eta antzekoetan erretzen ahalko da, baina erretzaileak geldirik egonen dira, mugitu gabe, eta gutxienez ere 2 metroko segurtasun-tartea bermatu beharko dute beste pertsona batekin.

14. G- Erre daiteke taberna, kafetegi, jatetxe eta abarretako terrazetan?

E- Debekaturik dago terrazetan erretzea, zigarreta elektronikoak barne, edo nikotina bota dezaketen gailuak erabiltzea, baldin eta ezin bada bermatu 2 metroko segurtasun-tartea terrazan dauden pertsona guztien artean.

Halere, gomendatzen zaie bezeroei bertan ez erretzea, arriskua dagoelako erretzaileak aerosolen emisioa handitzeko, eta, horren ondorioz, COVID-19a kutsatzeko.

15. G- Lasterka egitera noa, maskara jantzita eraman behar dut?

E- Lasterkariak ("runners"), jarduera fisikoan ari direnean, maskara erabili beharko dute beti ezin dutenean bermatu pertsonen arteko 1,5 metroko

segurtasun-tartea, Osasuneko kontseilariaren uztailaren 15eko 34/2020 Foru Aginduak ezartzen duenaren arabera.

Halaber, jarduera fisiko hori **pertsona asko dauden tokietan** egiten dutenean –hala nola **parkeetan, ibai ondoko pasealekuetan, hirigunean edo antzokoetan–, gomendatzen da banaka egitea, eta ez taldeka.**

4 Prebentzio neurri ezohikoak

16. G- Zer prebentzio neurri orokor bete behar ditugu birusaren transmisioa gutxitzeko?

E- Zehazki, honako prebentzio neurri hauek bete beharko ditugu:

- **Maskara behar bezala erabiltzea**, indarra duen araudiarekin bat.
- Pertsonen arteko **tartea**: 1,5 metro gutxienez.
- **Eskuak garbitzea**: soluzio hidroalkoholikoaz edo ur eta xaboiak.
- **Erabilera publikoko establezimenduak**:
 - o **Aireztatzea, ahal dela modu naturalean eta etengabe.**
 - o Gomendatzen da airearen kalitatea neurtzeko aukera ematen duten CO₂-aren neurgailuak jartzea. CO₂-aren kontzentrazioa ez da inoiz izanen 800 ppm-tik gorakoa.
 - o Esparru publikoko espazio itxi guztietan, ahal den neurrian, Osasun Ministerioak indarrean dituen gomendioei jarraituko zaie, hots, eraikin eta lokaletako klimatizazio eta aireztapen sistemak mantentzeko emandako gomendioei.

Ostalaritzako establezimenduak eta jatetxeak

17. G- Ireki al daiteke barnealdea ostalaritzako establezimenduetan eta jatetxeetan?

E- Bai.

Taberna berezi, ikuskizunetarako kafetegi, taberna, kafetegi eta jatetxe gisako lizentzia duten establezimenduen **barnealdean kontsumi daiteke**, baldin eta Osasuneko kontseilariaren maiatzaren 12ko 16/2021 Foru Aginduan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Barnealdea **irekitzeko bi aukera** daude:

1. Baimendutako gehieneko **edukieraren % 60**, baldintza zehatz batzuk beteta.

2. Edukieraren mugarik gabe: mahaien inguruko aulkien arteko distantziak zehaztuko du edukiera, eta baldintza zehatz batzuk bete beharko dira.

18. G- Zer ordutara arte ireki daiteke barnealdea ostalaritzako establezimenduetan eta jatetxeetan?

E- Irekitzeko edozein edukiera hautatzen dela ere, **ostatuen barnealdeak 01:00ean itxiko dira** beranduenez.

19. G- Zer baldintza bete behar dute ostalaritzako establezimenduek eta jatetxeek, edukieraren % 60 errespetatuta barnealdea irekitzeko?

E- Baimendutako gehieneko **edukieraren % 60 errespetatuta barnealdea irekitzea**. Bete beharreko **baldintzak**:

Kontsumoa mahaietan, ez barran

- **Mahaietan eta eserita** egingen da kontsumoa.
- Kontsumitzaileek barrak erabiltzen ahalko dituzte janari-edariak eskatu eta hartzeko.

Mahaien arteko tartea

- Mahaien arteko tartea 1,5 metrokoa izanen da, mahaien ertzetik neurtuta.

Mahai bakoitzeko jende kopurua

- Mahaiaren edo mahaien inguruan ezin izanen dira sei pertsona baino gehiago elkartu, eta bermatuta egonen da 70 cm-ko segurtasun-tartea pertsonen artean.

Maskara jarrita

- **Maskara erabiltzea nahitaezkoa da** jendearentzat zabalik dagoen edozein espazio itxitan. Maskara erantzten ahalko da soilik kontsumitzen den unean.

- Kontrolatuko da bezeroek maskara behar bezala erabiltzen dutela.

Ahalik eta gehien aireztatzea

- Ahal dela, **gomendatzen da** establezimenduek **aireztapen naturala** izatea, edo artifizial mekanikoa, airearen birzirkulaziorik gabe.
- Gomendatzen da, halaber, **ahalik eta gehien aireztatzea eta airearen kalitatea neurtzea, CO₂-aren neurgailuen bidez.**
- **CO₂-aren kontzentrazioa milioiko 800 partetik gorakoa denean,** gomendatzen da aireztapena handitzea edo jende kopurua gutxitzea, adierazle horretatik behera jaitsi arte.

Informazio kartelak

- Establezimenduen **ate nagusietan**, bai barrualdean, bai kanpoaldean, **kartelak** jarri beharko dira, gutxienez ere DIN A3 tamainakoak, eta horietan adierazi beharko dira **lokalaren gehieneko edukiera eta orain baimentzen dena.**
- Kartelak toki nabarmenean egonen dira, **bezeroek** birusaren transmisioa saihesteko **bete behar dituzten neurri orokorrak** (distantzia, eskuen higieena eta maskara) adierazteko.

20. G- Zer baldintza bete behar dute ostalaritzako establezimenduek eta jatetxeek, edukieraren mugarik gabe barnealdea irekitzeko?

E- Edukieraren % 60ko muga ez zaie aplikatuko taberna berezi, ikuskizunetarako kafe, taberna, kafetegi eta jatetxeen lizentzia duten establezimenduei, **baldintza hauek betetzen badituzte:**

- **Barnealdeko mahaien artean 1,5 metroko distantzia egotea, ertzetik ertzera neurtuta.**
- **Mahai bakoitzean gehienez 6 pertsona egotea eta mahaikideen artean gutxienez 70 cm egotea.**
- Jantokiko lokalak **aireztapen egokia** izatea.
- **CO₂-aren neurgailua izatea, eta lokaleko CO₂-aren kontzentrazioa inoiz ez izatea 800 ppm-tik gorakoa.**

- **Trazabilitatea bermatzeko neurri egokiak hartzea bazkarietan eta afarrietan**, behar denean bezeroekin harremanetan arin jartzeko.
- **Kartelak toki nabarmenean** izatea, bezeroek birusaren transmisioa saihesteko bete behar dituzten neurri orokorrak (distantzia, eskuen higieena eta maskara) adierazteko.
- **Mahaian eta eserita** eginen da beti kontsumoa.

Barnealdea edukiera mugarik gabe irekitzeko, aurreko baldintzez gainera, **erantzukizunpeko adierazpena bete behar duzu** Nafarroako Gobernuko tramiteen katalogoko hurrengo [fitxan](#).

21. G- Irekita daude terrazak ostalaritzako establezimenduetan eta jatetxeetan?

E- Bai.

Irekita jarraituko dute taberna berezi, ikuskizunetarako kafetegi, taberna, kafetegi eta jatetxe gisako lizentzia duten establezimenduek eremu publikoan dituzten aire zabaleko terrazek.

22. G- Zer ordutan itxi behar dute ostalaritzako establezimenduetako eta jatetxeetako terrazek?

E- Ordutegia: udal ordenantzan edo lizentzian ezartzen dena; gehienez ere 01:00a arte.

Iruñean, maiatzaren 1etik irailaren 30era:

- **Mahai eta aulki baxuak dituzten terrazak:** 09:00etatik biharamuneko 01:00era, eta aukera dago beste ordubete luzatzeko larunbat, igande eta jaiegunetan (udalaren onarpena behar da).
- **COVID-19aren araudiak baimendutako terrazak:** 23:00ak arte. Adibidez, toki hauetan dauden terrazak: Sarasate pasealekua, zezen plaza, Gurutzeko plaza, Nafarroako Artxiboa, Nafarroako Museoa, etab.
- **Mahai altuak eta upelak:** astelehen, astearte, asteazken eta igandeetan, 09:00etatik 22:00ak arte; ostegun, ostiral, larunbat eta jaiegunen bezperetan, 09:00etatik 23:00ak arte, eta aukera dago beste ordubete

luzatzeko maiatzaren 1etik irailaren 30era arte (udalaren onarpena behar da).

23. G- Erre daiteke ostalaritzako establezimenduetako eta jatetxeetako terrazan?

E- Debekaturik dago terrazetan **erretzea**, zigarreta elektronikoak barne, edo nikotina bota dezaketen gailuak erabiltzea, **baldin eta ezin bada bermatu 2 metroko segurtasun-tartea** terrazan dauden pertsona guztien artean.

24. G- Maskara jantzi behar dugu tabernako edo jatetxeko terrazan?

E- Bai.

Maskara erabiltzea nahitaezkoa izanen da aire zabaleko edozein espaziotan, pertsonen pilaketa dela eta, haien arteko gutxieneko distantzia ezin bada 1,5 metrokoa izan, bizikide taldeak izan ezik.

25. G- Zertaz ari gara "terrazak" aipatzean? Zer ezaugarri izan behar dute?

E- Aire zabaleko terrazak honako hauek dira:

- Gehienez ere bi hormak, paretak edo paramentuk mugatua, gehieneko azalera itxia aldeko perimetroaren % 50ekoa duena, terraza atxikia duen eraikinaren fatxada barne, halakoa bada.
- Ez dira paramentutzat hartzen espazio fisikoak mugatzeko erabiltzen diren eta airearen zirkulazio librea ahalbidetzen duten elementuak, finakoak nahiz mugikorak, altuera edo bolumen gutxikoak (gehienez ere metro batekoak).
- Lehendik dauden eta baimenduta dauden terrazetan ez dira paramentutzat hartuko garaiera handiagoko elementuak, finakoak edo mugikorak, baldin eta ez badira 1,60 metrotik gorakoak.

26. G- Zer baldintza bete behar dituzte terrazek ostalaritzako establezimenduetan eta jatetxeetan?

E- Terrazak baldintza hauek betez irekiko dira:

- **Mahaien arteko tartekak 1,5 metrokoa izan behar du**, mahaien ertzetik neurtuta.
- Establezimenduen titularrek **seinaleak** egin beharko dituzte lurrean, mahaiak kokatu behar diren tokietan, segurtasun-tartea errespetatze aldera.
- Kontrolatuko da bezeroek maskara behar bezala erabiltzen dutela. Pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea gordetzerik ez badago, maskara erabiltzea nahitaezkoa izanen da.
- **Debekaturik dago** terrazetan **erretzea**, zigarreta elektronikoak barne, edo nikotina bota dezaketen gailuak erabiltzea, **baldin eta ezin bada bermatu 2 metroko segurtasun-tartea** terrazan dauden pertsona guztien artean.
- Halere, gomendatzen zaie bezeroei terrazetan ez erretzea, arriskua dagoelako erretzaileak aerosolen emisioa handitzeko, eta, horren ondorioz, COVID-19a kutsatzeko.
- **Mahaietan eta eserita** eginen da beti kontsumoa.

27. G- Zenbat pertsona bil gaitzke terraza batean?

E-

- Mahai bakoitzeko, **10 lagun elkartuko dira gehienez, betiere horien artean 70 cm-ko segurtasun-tartea errespetatzen dela bermatzeko modua badago.**
- **70 cm baino gutxiagoko aldea edo diametroa duten mahaien eta/edo upelen bueltan gehienez ere bi pertsona** egonen dira eta, kasu guztietan, eserita.

Diskotekak eta dantzalekuak

28. G- Ireki al daitezke diskotekak eta dantzalekuak?

E- Diskoteken eta dantzalekuen jarduera **baimentzen da, barreneko aldearen edukiera % 50 bete arte, gehienez.**

- **Mahaietan eserita kontsumituko da, mahai bakoitzean 6 lagun gehienez**, pertsonen artean 70 cm-ko tarte utzita, eta mahaien artean 1,5 metro.
- **Ez dago baimenduta dantzatzeko pista** edo horretarako prestatutako eremua erabiltzea.

29. G- Zer baldintza bete behar dituzte establezimendu horiek, terrazak irekitzeko?

E- Terrazak baldintza hauek betez irekiko dira:

- **Mahaien arteko tarteak 1,5 metrokoa izan behar du**, mahaien ertzetik neurtuta.
- Establezimenduen titularrek **seinaleak** egin beharko dituzte lurrean, mahaiak kokatu behar diren tokietan, segurtasun-tarte errespetatze aldera.
- Kontrolatuko da bezeroek maskara behar bezala erabiltzen dutela. Pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tarte gordetzerik ez badago, maskara erabiltzea nahitaezkoa izanen da.
- **Debekaturik dago** terrazetan **erretzea**, zigarreta elektronikoak barne, edo nikotina bota dezaketen gailuak erabiltzea, **baldin eta ezin bada bermatu 2 metroko segurtasun-tarte** terrazan dauden pertsona guztien artean.
- Halere, gomendatzen zaie bezeroei terrazetan ez erretzea, arriskua dagoelako erretzaileak aerosolen emisioa handitzeko, eta, horren ondorioz, COVID-19a kutsatzeko.
- **Mahaian eta eserita** egingen da beti kontsumoa.

30. G- Zer ordutan itxiko dira establezimendu horiek beranduenez?

E- 01:00ean itxiko dira beranduenez, establezimendu horiek jendez husteko denbora barne.

Alkoholaren salmenta

31. G- Zer ordutara arte sal daiteke alkohola?

E- Debeku da alkohola saltzea **22:00etatik 08:00etara bitarte**, publikoari saltzen dioten mota guztietako establezimenduetan, edozein dela ere duten lizentzia. Salbuetsita daude taberna berezi, ikuskizunetarako kafetegi, taberna, kafetegi eta jatetxe gisako lizentzia duten establezimenduak.

Turismoko ostatuak

32. G- Turismoko ostatuak irekita daude?

E- Bai. Turismoko ostatuen jarduera ez dago geldiarazia Nafarroan.

Hotelak

- Hoteletako eta ostatu turistikoetako **eremu komunetan**, okupazioak **ezin izanen du gainditu baimendutako gehieneko edukieraren % 75**, eta une oro mantendu beharko da 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean.
- Hoteletako eta ostatu turistikoetako kirol-instalazioei dagokienez (adibidez, igerilekuak eta gimnasioak), instalazio horietarako berariazko neurriak aplikatu beharko dituzte.

Aterpetxeak

- Aterpetxeak: **ohatzeak (literak) dituzten logeletan** ezin bada pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-tartea gorde, okupazioa baimenduriko **gehieneko edukieraren % 50 izatea** baimenduko da.
- Pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-tartea bermatzea ahalbidetzen duten oheak dituzten logelak edo **logela bereziak dituzten aterpetxeetan, okupazioa baimenduriko gehieneko edukieraren % 75** izatea baimenduko da.
- Establezimenduaren titularrek antolamendu neurri batzuk ezarriko dituzte, egokiak direnak pilaketak saihesteko eta barnealdean pertsonen arteko

segurtasun-tartea gordetzen saiatzeko. Bestela, babes fisikorako beste neurri batzuk ezarriko dituzte bezeroak elkarrengandik zein langileengandik behar bezala babesteko, maskara janztea ekarriko dutenak.

- Establezimenduak jatetxe edo ostalaritzako zerbitzu motaren bat ematen badu, zerbitzuak establezimendu horietarako ezarritako baldintzak beteko ditu.

Elkarte gastronomikoak eta peñak

33. G- Ireki al daitezke elkarte gastronomikoak eta peñak?

E- Bai

Maiatzaren 21etik aurrera, elkarte gastronomikoak eta peñak **irekitzen ahalko dira**, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- Establezimenduen barnealdeko **edukiera baimendutako gehieneko edukieraren % 60** izanen da.
- **01:00ean itxiko dira**, hau da, ostalaritzako establezimenduen eta jatetxeen barnealdeak itxeko duten ordutegi bera izanen dute.
- **Debekatua dago** barnean erretzea.
- **Mahaietan eserita egiten da kontsumoa**. Barrak erabiltzen ahalko dira janari-edariak eskatu eta hartzeko.
- **Mahaien arteko tartea 1,5 metrokoa izan behar du**, mahaien ertzetik neurtuta.
- **Mahaiaren edo mahaien inguruan ezin izanen dira sei pertsona baino gehiago elkartu, eta bermatuta egonen da 70 cm-ko segurtasun-tartea pertsonen artean**.
- **Informazio kartelak** jarriko dira ongi ikusteko moduko tokietan, informazioa ematen dutenak osasun agintariek gomendatzen dituzten higie prozedurei buruz, eta adierazten dutenak denon laguntza behar dela antolaketarako nahiz higiearen arloan hartu diren neurriak betetzeko.
- **Lokalen sarreran**, toki nabarmenean, **kartelak** jarri beharko dira, gutxienez ere DIN A3 tamainakoak, eta horietan adierazi beharko dira

lokalaren gehieneko edukiera eta foru agindu honek baimentzen duena.

- **Maskara erabiltzea nahitaezkoa izanen da beti**, salbu eta edateko edo jateko unean. Kontrolatuko da maskara behar bezala erabiltzen dela.
- Ahal dela, **gomendatzen da lokalek aireztapen naturala izatea**, edo artifizial mekanikoa, airearen birzirkulaziorik gabe. **Gomendatzen da, halaber, ahalik eta gehien aireztatzea eta airearen kalitatea neurtzea, CO₂-aren neurgailuen bidez.** CO₂-aren kontzentrazioa milioiko 800 partetik gorakoa denean, gomendatzen da aireztapena handitzea edo jende kopurua gutxitzea, adierazle horretatik behera jaitsi arte.
- Erabiltzaileen eskura jarriko dira **gel hidroalkoholikoak edo** birusak hiltzeko ahalmena duten desinfektatzaileak, Osasun Ministerioak baimendu eta erregistratuak.
- Beren lokaletan egiten diren jardueretan **beteko da jarduera bakoitzerako atalean xedatutakoa.**
- **Edukiera kontrolatzeko sistema bat** izan beharko da, **lokalean sartzen diren pertsonak zenbatzeko. Hala ere, ezin izanen da gainditu edukieraren % 60.**
- Lokal horiek ireki baino lehen, **[erantzukizunpeko adierazpena](#)** edo aktaren kopia igorri beharko dute Osasun Departamentura, osasun arloan indarrean dagoen araudia betetzeko konpromisoaren akordioa adierazten duena, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz hartu beharreko prebentzio neurriei dagokienez. Helbide elektronikoa honetara igorri behar da dokumentazio hori: **comunicaciones.sgtsalud@navarra.es**.

34. G- Ireki al daitezke aisialdiko etxabeak eta piperok?

E- Ez, itxita egonen dira.

Garraioa

35. G- Zer neurri gomendatzen dira bidaiari gutxiago elkar daitezen garraibideetan jende gehien ibiltzen den orduetan?

E- Gomendatzen da enpresek eta administrazio publikoek langileen sarrera-irteerak malgutu ditzatela, edo erraztasunak eman, bidaiari gutxiago elkar daitezen Iruñerriko hiri-garraio erregularreko linea nagusietan jende gehien ibiltzen den orduetan.

36. G- Zer baldintza bete behar ditu garraioak?

E- Iruñerriko bidaiarien hiri-garraio erregularreko ibilgailuetan, eserlekuen okupazioa % 100ekoa izanen da ordu-tarte guztietan, betiere flotaren gehieneko edukierak horretarako aukera ematen badu. Zutik bidaiatuz gero, gehieneko okupazioa bi pertsonakoa izanen da metro koadroko.

Ibilgailuetan, **baldintza** hauek bete beharko dira:

- **Ireki daitezkeen leihatilak** izanez gero, **guztiak** irekita egon beharko dute airearen zirkulaziorako.
- **Sarreran eta irteeran gel hidroalkoholikoaren banagailuak** paratuko dira, **eta erabiltzaileei gogoraraziko zaie komeni dela eskuak garbitzea** autobusera sartzean eta horretatik ateratzean.
- **Hiriarteko garraioari dagokionez, eskatuko da autobusetan gel hidroalkoholikoa egotea** sarreran zein irteeran, eta erabiltzaileei gogoraraziko zaie komeni dela eskuak garbitzea autobusera sartzean eta horretatik ateratzean.
- Aurretik aipatutakoa ez zaio **eskola-garraioari** aplikatuko, jada aplikagarriak zaizkien osasun-babeserako neurriak ezertan eragotzi gabe

Haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak

37. G- Joan gaitzke jolastokietara edo aire zabalean dauden erabilera publikoko kirol eremuetara?

E- Bai, haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak erabiltzen ahal dira, eta haren erabilera **baimendutako gehieneko edukieraren % 100ekoa izan daiteke.**

Pandemiaren aurreko baimenak arautuko du **ordutegia.**

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak eta bestelako ekitaldiak

38. G- Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak eta beste ospakizun sozial, familiar, erlijioso edo zibil batzuk. Zer edukiera gorde behar da?

E-

Ospakizunak

- Gurtza-lekuetako ospakizunetan **ezin izanen dira 400 pertsona baino gehiago elkartu. Pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea** errespetatu beharko da (hau da, 2,25 metro koadro pertsonako).
- **Gurtza-lekuak ez diren lokaletan** ospatzen direnen kasuan, pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-tartea errespetatu beharko da (hots, 2,25 metro koadro pertsona bakoitzeko) lokal horien barnean.
- Ospakizunetan **ez abestea** gomendatzen da.

Zeremonia ondoko ospakizunak

Ezkontza, bataio, jaunartze eta bestelako **ospakizun** sozial, familiar, erlijioso edo zibiletan, zeremoniaren ondotik ospakizunak egiten badira, baldintza hauek bete beharko dira:

1. Baimendutako gehieneko **edukieraren % 60 errespetatuta barnealdea irekitzen duten establezimenduak:**
 - **75 pertsonako muga** izanen dute **barnealdean eta 150 pertsonakoa kanpoaldean** ospakizunerako, **baldin eta** ostalaritzako establezimenduetarako eta jatetxeetarako **ezarritako neurri guztiak betetzen badituzte.**
2. **Edukieraren mugarik gabe barnealdea irekitzen duten establezimenduak: mahaien artean 1,5 metroko distantzia errespetatu beharko dute,** mahaien ertzetik neurtuta.

Bi kasuetan:

- Ulertzen da muga hori establezimenduko ospakizun bakoitzari dagokiola, ongi bereizitako eremuetan baldin badaude.
- **Ez dago baimenduta dantzatzeko pista edo horretarako prestatutako eremua erabiltzea.**
- Ospakizunetarako aretoak dituzten establezimenduek ospakizunetan bete beharreko baldintzen gaineko [erantzukizunpeko adierazpen bat](#) bidali beharko dute comunicaciones.sgtsalud@navarra.es helbide elektronikora, eta, betiere, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak ezarritako jarraibideak bete beharko dituzte.

Hiletak, beilak, errausteak, agur zibilak eta gurtza-lekuak

39. G- Zer baldintza bete behar dira hileta eta beiletan?

E- Hiletetan eta beiletan **gehienez ere 100 pertsona biltzen ahalko dira aire zabalean direnean, eta 25 pertsona gehienez toki itxietan direnean.**

40. G- Zein da barnealdeko edukiera errausteetan eta agur zibiletan?

E- Barnean egindako errausteetan eta agur zibiletan, **gehieneko edukiera % 50ekoa izanen da, eta gehienez 400 pertsona.**

41. G- Zer edukiera errespetatu behar da gurtza-lekuetan?

E- Gurtza-lekuetan errespetatu beharko da **pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea** (hau da, 2,25 metro koadro pertsonako), eta **gehienez 400 pertsona.**

- Sarrerak eta irteerak modu mailakatuan, pilaketarik ez gertatzeko.
- Ebidentzia zientifikoa baitago adierazten duena kantuaren bidez kutsatzeko arriskua handitzen dela, **gomendatzen da ospakizunetan ez kantatzea.**

Txikizkako merkataritza establezimenduak eta lokalak eta jarduera eta zerbitzu profesionalekoak, jendearentzat irekita daudenak.

42. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke txikizkako merkataritza establezimendu eta lokaletan eta jarduera eta zerbitzu profesionalekoetan, jendearentzat irekita badaude?

E-

- Ezin izanen da gainditu **baimenduriko gehieneko edukieraren % 75**.
- Beranduenez ixteko **ordua** establezimendu mota horietarako baimendutakoa izanen da.
- Establezimenduen ate nagusietan, bai barrualdean, bai kanpoaldean, **ongi ikusten den kartel bat** jarri beharko da, gutxienez ere DIN A3 tamainakoa, eta **horretan adierazi beharko dira lokalaren gehieneko edukiera eta orain baimentzen dena**.

Hipermerkatuak, saltoki ertain eta handiak, merkataritza-gune edo merkataritza-parkeak, eta haien parte direnak.

43. G- Zer neurri bete behar dira hipermerkatuetan, saltoki ertain eta handietan, merkataritza-gune edo merkataritza-parkeetan, eta haien parte diren guneetan?

E-

- Ez dute gainditzen ahal **bertan kokatutako merkataritza-lokal bakoitzean baimendutako gehieneko edukieraren % 60**.
- **Establezimenduetan dauden** ostalaritza jarduerari eta **zinema-aretoei**, jarduera bakoitzerako ezarritako arau eta ordutegi berariazkoak aplikatuko zaizkie.
- Beranduenez ixteko **ordua** establezimendu mota horietarako baimendutakoa izanen da.
- Merkataritza-guneetako establezimenduen ate nagusietan, bai barrualdean, bai kanpoaldean, **ongi ikusten den kartel bat edo pantaila bat** edo antzekoa jarri behar da, eta **horretan adierazi**

beharko da lokalaren edukiera. Kartela, pantaila edo antzekoa gutxienez ere DIN A3 tamainakoa izanen da.

- Establezimenduen ate nagusietan, ongi ikusten den kartel bat, pantaila bat edo antzeko zerbait jarri behar da, gutxienez ere 70 x 120 cm izanen dituena, eta horretan adierazi beharko da establezimenduaren gehieneko edukiera orokorra (merkataritza-gunean dauden establezimendu guztietan baimendutako edukieren batura).
- Ez da uzten bezeroak gune komunetan egotea, barne direla atsedenguneak, saltokien arteko joan-etorrietarako ez bada.
- **Jolas eremuetan** (haurrentzako parkeak eta antzekoak) ezin da gainditu **edukiera osoaren % 50.**
- Establezimendu horietako arduradunak behartuta daude sartzeko ateetan kontrola eta zenbaketa-sistema egitera, edukieraren % 60 betetzen dela kontrolatzera, eta bezeroak gune komunetan ez daudela kontrolatzera, joan-etorrietarako izan ezik.

Azoka txikiak

44. G- Zer baldintza bete behar dituzte azoka txikiak?

E- Bide publikoan, aire zabalean nahiz salmenta ez-sedentarioan aritzen diren azoketan, hots, azoka txikiak deitu ohi diren horietan:

- **Saltokiak aurrez aurre bereizita** egon behar dira **igarobide baten bidez**, erabiltzaileak handik igaro daitezten. Igarobide horrek **gutxienez ere 4,5 metroko zabalera** izan behar du, eta bermatu behar du **erabiltzaileen artean gutxienez ere 1,5 metroko tartea** gordetzen ahal dela.
- **Elkarren ondoko bi saltokien artean elementu isolatzaileak paratu beharko dira**, elkarren artean independente izan daitezten; halakorik ez bada, 1,5 metroko tartea egon beharko da, gutxienez.
- **Erabiltzaileak ezin dira inolaz ere saltokien alboetatik ibili.** Barrutiak **sartzeko gune bat eta irteteko beste bat edukiko ditu**, eta biak ongi bereizita egonen dira.

Ekitaldietarako funtzio anitzeko espazioak dauzkaten establezimenduak

45. G- Ireki daitezke ekitaldietarako funtzio anitzeko espazioak dauzkaten establezimenduak?

E- Bai

Erabilera anitzeko espazioak alokatzen dituzten establezimenduek Gobernuaren 2020ko ekainaren 19ko Erabakian ezarritako higiene eta prebentzio arauak bete beharko dituzte, baita ondoren emandako araudian ezarritakoak ere.

Ospakizunak egiten badira establezimendu horietan,

- **kontrol presentziala bermatu** beharko dute eta errespetatu beharko dira **pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-tarteak** gordetzeko neurriak, eta ez dira behin ere **75 pertsona** baino gehiago izanen **barrualdean**, eta **150 pertsona** gehienez **kanpoaldean**. Ulertzen da muga hori ospakizunetan ari den talde bakoitzari dagokiola, ongi bereizitako eremuetan baldin badaude.
- Ospakizun horietan, betiere, **ezin da gainditu edukieraren % 60 establezimenduen barnealdean**. Halaber, ostalaritza eta jatetxe jarduerarako baldintzak bete beharko dituzte.
- **Lokalaren barruan, kontsumoa eserita egiten ahalko da soilik**, mahai batean edo mahai batzuk elkartuta.
- **Maskara erabiltzea nahitaezkoa da** beti, salbu eta edateko edo jateko unean. Kontrolatuko da bezeroek maskara behar bezala erabiltzen dutela.
- **Lokalean ez da dantzalekurik baimentzen.**
- Establezimendu horiek **01:00ean itxiko dira**.
- **Establezimendu horiek aireztapen natural edo mekaniko behartua izan beharko dute**, airearen birzikulaziorik gabea, eta CO₂-aren neurgailua; CO₂-aren kontzentrazioa ez da inoiz izanen 800 ppm-tik gorakoa.
- Kartelak toki nabarmenean izanen dituzte, bezeroek birusaren transmisioa saihesteko bete behar dituzten neurri orokorrak (distantzia, eskuen higiena eta maskara) adierazteko.
- Trazabilitatea bermatzeko neurri egokiak hartuko dira, behar denean

bezeroekin harremanetan arin jartzeko.

- Establezimendu horiek aurkeztu beharko dituzte gorago adierazitako baldintzak betetzen dituztela dioen [erantzukizunpeko adierazpen bat](#) eta establezimenduaren [fitxa teknikoa](#) (behar dena beteko da). Bi dokumentu horiek honako helbide elektronikora igorri behar dira: comunicaciones.sgtsalud@navarra.es

Akademiak, autoeskolak, eta irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeak eta prestakuntza zentroak.

46. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke akademia, autoeskola eta irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeetan eta prestakuntza zentroetan?

E- Akademia, autoeskola, eta irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeetan eta prestakuntza zentroetan, jarduera **aurrez aurrekoa izaten ahalko da**, baldin eta **ez bada gainditzen baimendutako gehieneko edukieraren % 75** eta **bermatzen bada 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean.**

22:00etan itxi behar dute beranduenez.

47. G- Zer baldintza bete behar dituzte dantzan ikasteko edo egiteko aretoek?

E- **Dantzan ikasteko edo egiteko aretoen** edukiera kalkulatzeko irizpidea izanen da pertsona bakoitzeko 5 metro koadro behar direla.

48. G- Nola gauza daiteke dantzaren jarduera?

E- Dantza jardueran, bere modalitate guztietan, kontuan hartu beharko da **1,5 metroko tartea** gordetzea, ahal den neurrian. Tarte hori bermatzerik ez badago, maskarak erabili beharko dira.

- **Ikasle taldeak egonkorak izanen dira**, eta ezin izanen da aldaketarik egin taldeen eta/edo klaseen artean. Bikoteka dantzatzeko eskoletan ere **ezin izanen dira bikotekideak aldatu.**

- **Klase batetik besterako tartetean** espazioak **aireztatu egingen dira**, ahal dela modu naturalean.

- Jarduera guztiek **prebentzio eta antolaketa protokolo bat** izanen dute haiek gauzatzeko, orain arte onetsitako osasun gomendioak bilduko dituen.

Kirol-jarduerak eta -instalazioak

Jarraian, Nafarroako Foru Komunitatean kirol-jarduera garatzeko ezohiko prebentzio-neurri espezifikoak azaltzen dira.

Argibide gehiago hemen:

https://www.deportenavarra.es/eu/maiz-egiten-diren-galderak_faq

49. G- Zer neurri bete behar dira kirol-jardueretan eta -instalazioetan?

E-

- Kirol-jardueretarako edukierak, barnealdean nahiz kanpoaldean egiten direnetarako, Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen ebazpen baten bidez ezarritakoak dira.
- Debekatuta dago saunak, bainu turkiarrak edo antzekoak erabiltzea. Kirol errendimenduko kirolariak bakarrik erabiltzen ahalko dituzte haien prestakuntza fisikoaren osagarri gisa, aldeztatik hitzordua eskatuz eta banaka erabiltzeko.
- Baimenduta dago aldagelak eta dutxak erabiltzea. Erabilera kolektiboko dutxak edukia % 50 errespetatuta erabiltzen ahalko dira, eta ezin izanen dira erabili alboko dutxak. Neurri hau ez da aplikatuko baimendutako lehiaketetan.
- Baimenduta dago dutxak erabiltzea, banaka; hau da, ezin izanen dituzte pertsona batek baino gehiagok erabili aldi berean. Neurri hau ez da aplikatuko baimendutako lehiaketetan.
- Gimnasioetan kirol-jarduera egiteko, hitzordua eskatu beharko da aurretik. Mugitzea eskatzen duten jardueretarako, 20 m²-ko espazioa gordeko da pertsona bakoitzeko. Mugitu gabe egiten diren jardueretan, berriz, 8 m²-ko espazioa mantenduko da pertsona bakoitzeko. Nolanahi ere, **nahitaezkoa izanen da maskara erabiltzea.**

- **Lehiaketa** ez-profesionalak eta kirol-ekitaldiak ikusleekin egiten ahalko dira, baldin eta ez bada gainditzen baimendutako gehieneko edukieraren % 75. **Instalazio itxietan, 350 pertsona** joaten ahalko dira gehienez publiko gisa, eta beti errespetatu beharko dira 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean eta maskararen erabilera egokia.
- **Lehiaketa** ez-profesionalen eta **aire zabaleko** instalazioetan egiten diren kirol-ekitaldien kasuan, **800 pertsona** joaten ahalko dira gehienez publiko gisa, eta beti errespetatu beharko dira 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean eta maskararen erabilera egokia.
- **Barrualdean 350 pertsona baino gehiago eta kanpokoetan 800 pertsona baino gehiago biltzen dituzten jardueretarako**, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren txosten loteslea beharko da.
- Nolanahi ere, debeku da jatea eta edatea kirol-lehiaketa eta -ekitaldietan.
- Hala ere, 22:00etatik aurrera erabiltzen ahalko da kirol-instalazioen **barnealdea** lehiaketak eta entrenamenduak egiteko, baldin eta horretarako baimena ematen badu instalazioaren titularrak.

50. G- Nola egin behar dira zuzendutako kirol-jarduera fisikoak espazio itxi eta irekietan?

E- Honako hauek jotzen dira zuzendutako jardueratzat:

- **aisialdiarekin, prestakuntza fisikoarekin eta osasunarekin zerikusia duten jarduera fisikoak oro, partaideen adina edozein delarik ere.**
- **Ez dira sartzen** jarduera horien barruan **kirol modalitate bateko entrenamenduak edo kirol hastapeneko eskolak.**

Baldintzak:

- Zuzendutako kirol-jarduera fisikoak espazio itxietan egiteko taldeetan, **ez dira arituko 20 pertsona baino gehiago**, eta Nafarroako Kirolaren Institutuak xedatutakoaren arabera arautuko dira.
- Edonola ere, zuzendutako kirol-jarduera fisikoak **25 pertsonako taldeetan** egiten ahalko dira espazio itxietan, instalazioak **5 metro**

koadro baldin baditu parte-hartzaile bakoitzeko, mugikortasun txikiko jardueretarako, eta 16 metro koadro baditu parte-hartzaile bakoitzeko, berriz, mugikortasun handiko jardueretarako, aireberritze naturala badu edo artifiziala (mekanikoa), airearen birzirkulaziorik gabe.

- Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 3. artikuluan aipatzen diren irakaskuntzen babesean egiten diren kirol-jarduera fisikoak salbuetsirik daude.
- **Lasterkariak (“runners”)**, jarduera fisikoan ari direnean, **maskara erabili beharko dute beti ezin dutenean bermatu pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea**, Osasuneko kontseilariaren uztailaren 15eko 34/2020 Foru Aginduak ezartzen duenaren arabera (foru agindu horrek prebentzio neurriak ezartzen ditu COVID-19ak eragindako osasun krisian Nafarroako Foru Komunitatean maskara erabiltzeari dagokionez).
- Halaber, jarduera fisiko hori **pertsona asko dauden tokietan** egiten dutenean –hala nola parkeetan, ibai ondoko pasealekuetan, hirigunean edo antzekoetan–, **gomendatzen da banaka egitea**, eta ez taldeka.
- Nahitaezkoa da **maskara erabiltzea instalazioetako sarbide eta joan-etorrietan**, bai eta kirol jarduera bitartean ere, intentsitate txikiko modalitateak badira ere.
- Kirol-praktika mota bakoitzaren modalitatea arautuko da Nafarroako Kirolaren Institutuak xedatutakoaren arabera.

Igerilekuak

51. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke igerilekuetan eta zer neurri hartu behar dira?

E- Aisialdiko igerilekuetan **edukieraren % 75**eko muga gorde beharko da, hala haietara sartzeko nola aisialdiko jardueretan bertan.

Igerilekuetako **berdeguneetan** gehienez ere egon daitezkeen pertsonen kopurua honela kalkulatzen da: pertsonako **4 metro koadro**.

Baimenduta dago **aldagelak eta dutxak** erabiltzea; kolektiboak, aldiz, % 50ean erabiliko dira, eta ezin izanen dira erabili alboko dutxak.

Nafarroako Kirolaren Institutuak arautuko du kirol-jardueretarako igerilekuen

erabilera.

Igerilekuak 22:00etan itxiko dira beranduenez.

Liburutegiak, artxiboak, monumentuak, erakustaretoak eta museoak

52. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke liburutegietan eta zer neurri hartu behar dira?

E- Liburutegiek (titulartasun publikokoak zein pribatukoak izan) beren jarduerari lotutako zerbitzuak emanen dituzte, baina **ezin izanen da gainditu baimenduriko gehieneko edukieraren % 75.**

Sustatuko da erabiltzaileek zerbitzuak telematikoki erabiltzea.

Liburutegi eta ludoteketan **haurrentzako jarduerak egiten ahalko dira: bizikidetza egonkorreko taldeak antolatuko dira, eta gehienez ere 15 parte-hartzaile onartuko dira, 12 urtetik beherakoak badira, eta 20 parte-hartzaile, 12 urtetik gorakoak badira. Bizikidetza egonkorreko talde bakoitzeko, begirale bat egonen da jarduera gainbegiratzen.**

Titulartasun publiko edo pribatuko artxiboek beren jarduerari lotutako zerbitzuak emanen dituzte, baina gehieneko okupazioak ezin izanen du gainditu baimenduriko **gehieneko edukieraren % 75.**

53. G- Zer baldintza bete behar dira monumentu, erakustareto eta museoetan?

E-

- Museoetan eta erakustaretoetan **ez da gainditzin ahalko baimendutako gehieneko edukieraren % 75**, eta, nolana ere, **ez da 350 pertsona baino gehiago** egoten ahalko.
- Inaugurazioak eta ekitaldi sozialak egiten ahal dira, baldin eta jate txer zerbitzurik ez badago, eta segurtasun-tarteak bermatzen ahal badira. Edukiera % 75ekoa izanen da, eta jarlekuak aurretik esleituko dira. Jarduera zutik egiten bada, edukiera irizpide honi jarraikiz kalkulatu da: 3 metro koadro pertsonako.

- Bisita edo jarduera gidatuak **gehienez ere hemezortzi pertsonako** taldeetan eginen dira, **eta hogeita bostekoak izaten ahalko dira kanpoan direnean.**
- **01:00ean** itxi behar dute beranduenez.

Zinemak, antzokiak, auditoriumak, karpadun zirkoak, aire zabaleko esparruak eta antzeko guneak

54. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke zinema-areto, antzoki, auditorium, karpadun zirko eta antzekoetan, aire zabaleko esparru eta antzeko beste lokal batzuetan, eta ikuskizun publikoetarako eta jostetako edo aisialdiko jardueretarako establezimenduetan?

E- Zinemak, antzokiak, auditoriumak, karpadun zirkoak eta antzekoak:

- Beren jarduera gauzatzen ahalko dute aurretik esleitutako eserlekuak erabilita, baldin eta areto bakoitzean **baimendutako gehieneko edukieraren % 75 gainditzen ez bada.** Nolanahi ere, **gehieneko edukiera ezin izanen da 350 pertsonatik gorakoa izan.**
- **01:00ean itxiko dira** beranduenez.

Aire zabaleko esparruetan eta antzeko lokaletan egiten diren jardueretan, eta ikuskizun publikoetarako, josteta edo aisia jardueretarako aire zabaleko establezimenduetan egiten direnetan,

- ezin izanen da gainditu baimendutako **gehieneko edukieraren % 75;** edonola ere, **800 pertsona** bilduko dira gehienez.
- **Barnealdean 350 pertsona baino gehiago eta kanpokoetan 800 pertsona baino gehiago bildu nahi dituzten jardueretarako,** Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren txosten loteslea beharko da.

55. G- Jan edo edan daiteke zinema-areto, antzoki, auditorium, karpadun zirko eta antzekoetan, aire zabaleko esparru eta antzeko beste lokal batzuetan, eta ikuskizun publikoetarako eta jostetako edo aisialdiko jardueretarako establezimenduetan?

E- Oro har, **debeku da jatea eta edatea** ikuskizun edo jardueretan, salbu eta **zinema-aretoetan, ikuskizun kafetegien lizentzia duten establezimenduetan edo aire zabaleko ekitaldietan**, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

Zinema-aretoak:

- Ezin izanen dute gainditu baimendutako gehieneko edukieraren % 50.
- Gutxienez bi besaulkiko tartea gorde beharko da bizikidetzta-unitateen artean.
- CO₂-aren neurgailua izan behar da aretoan, eta CO₂-aren kontzentrazioa inoiz ez da izanen 800 ppm-tik gorakoa.
- Kartelak toki nabarmenean jarri beharko dituzte, maskara uneoro nahitaezkoa dela oroitzeko, jateko eta edateko unean-unean izan ezik.
- Trazabilitatea bermatzeko neurri egokiak hartu beharko dira, behar denean bezeroekin harremanetan arin jartzeko.
- [Erantzukizunpeko adierazpena](#) aurkeztu behar dute Osasun Departamentuan, bertan jasorik puntu honen baldintzak betetzen direla. Adierazpen hori ondoko helbide elektronikora bidali behar da: direcciongeneralsalud@navarra.es

Ikuskizunetarako kafetegien lizentzia duten establezimenduak:

- **ekitaldi edo ikuskizunetan edukieraren % 75, jan-edanik gabe.**
- Janaria eta edaria kontsumitzen diren ikuskizunak eginez gero, ostalaritza eta jatetxe jardueretarako ezarritako neurriak bete beharko dira eta, horretarako, [erantzukizunpeko adierazpena](#) aurkeztu beharko da Osasun Departamentuan. Adierazpenean hitzemanen da hautatzen den aukerari dagozkion baldintzak beteko direla. Adierazpen hori ondoko helbide elektronikora bidali behar da: direcciongeneralsalud@navarra.es:
 - a. Baimendutako gehieneko edukieraren % 30, baldintza zehatz batzuk beteta (*ikusi19*. or.).
 - b. Edukieraren mugarik gabe: mahaien inguruko aukien arteko distantziak zehaztuko du edukiera, eta baldintza zehatz batzuk bete beharko dira (*ikusi20*. or.).

Kanpoaldeko ekitaldiak:

- **Aire zabaleko ekitaldietan jaten eta edaten ahal da**, baldin eta kultur ekitaldien antolatzaileek [erantzukizunpeko adierazpen](#) bat igortzen badiote, ekitaldia egin baino zazpi egun balioudun lehenago beranduenez, Kultura eta Kirol Departamentuari (helbide honetara: declaraciones.cultura@navarra.es. Adierazpen horretan hitzeman behar dute ostalaritza eta jatetxeetarako ezarritako arauak beteko dituztela. Aulki batean eserita egonda kontsumi daiteke, nahiz eta mahairik ez egon, baldin eta ikusleak ez badira mugitzen beren tokietatik. Horretarako, ostalaritza zerbitzu bat antolatuko da, edariak aulkietan daudenei zerbitzatzen dizkiena.

Biltzarrak, topaguneak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak.

56. G- Biltzarrak egin daitezke?

E- Lehenetsiko da biltzarrak telematikoki egitea. Beste modalitate edo formatu batean egin nahi izanez gero, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari jakinarazi beharko zaio aurretik.

Topaketak, akziodunen eta elkargo profesionalen batzarrak, negozio bilerak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak.

57. G-Topaketak, akziodunen eta elkargo profesionalen batzarrak, negozio bilerak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak egin daitezke?

E- Topaketak, akziodunen eta elkargo profesionalen batzarrak, negozio bilerak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak egiten ahalko dira, baldin eta **ez bada gainditzen baimendutako gehieneko edukieraren % 75, eta betiere 350 pertsona gehienez**; horiek eserita egon beharko dute, 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatuz horien artean. Horrek ez du galaraziko modalitate telematikoa gomendatzea.

Bozketarik egin behar bada, pertsonak mugitzea saihesten duten bozketa sistemak erabiliko dira.

Turismo-gidariak, eta turismo aktiboko eta naturako irteerak

58. G- Zer baldintza bete behar dituzte turismo-gidariak, eta turismo aktiboko eta naturako irteerak?

E-

Turismo-gidariak

- Jarduera horiek, barnean zein kanpoan, ahal dela, **aldez aurretik hitzordua eskatuta** eginen dira eta **taldeak, gehienez ere, 18** pertsonakoak izanen dira barnean eta 25ekoak kanpoan. **Kopuru hori 35era arte handitu daiteke elkarrekin bidaiatzen duten taldeen erreserbetan.**
- Jarduera egiten den bitartean, saihestuko da jende-pilaketak sor daitezkeen eremu edo tokietatik ibiltzea. Halaber, errespetatu beharko dira monumentuak eta bestelako kultur ekipamenduak bisitatzeko baldintzak, foru agindu honetan ezarritakoaren arabera.

Turismo aktiboko eta naturako irteerak

- Turismo aktiboko eta naturako irteerak **hogeita bost pertsonako taldeendako** ere onartuko dira, **aldez aurretik erreserba eginda**, enpresa edo gidari profesionalekin. **Kopuru hori 35era arte handitu daiteke elkarrekin bidaiatzen duten taldeen erreserbetan.**
- Dastaketa gastronomikoak dituzten bisita gidatuak** jatetxeko jardueratzat hartuko dira, eta, hortaz, ostalaritzaren sektorerako ezarritako arauak bete beharko dituzte.

Kanpaldiak, zeharkaldiak, eta gazteendako aterpetxeak

59. G- Zeharkaldiak eta kanpaldiak egin daitezke?

E-

- Etenda gelditzen dira** abuztuaren 22ko [107/2005 Foru Dekretuak](#) araututako **zeharkaldiak egiteko baimenak** (foru dekretu horren bidez

arautu ziren Nafarroako Foru Komunitatean aire zabalean egiten diren gazteendako jarduerak).

- Abuztuaren 22ko [107/2005 Foru Dekretuak](#) araututako **kanpaldiak egiteko baimenak emanen dira**, baldin eta **baldintza** hauek betetzen badira: parte hartuko duten gazteak **ez izatea 60 baino gehiago**, eta **monitoreen eta parte-hartzaileen arteko ratioa 1/8 edo txikiagoa izatea**. Bi mota bereizten dira:

- Kanpaldiak egitea % 100 mugi daitezkeen instalazioetan: baimenduko dira baldin eta **pabiloi motako dendetan** soilik ematen bada gaua, betiere parte-hartzaile bakoitzari **4 metro koadroko azalera** badagokio.
- Kanpaldiak **instalazio mistoetan, zati bat finkoa eta bestea mugigarria** dutenetan: baimenduko dira baldin eta osasun agintariek ezarritako edukierak errespetatzen badira eta zati mugigarria pabiloi motako dendak badira eta ratioa parte-hartzaile bakoitzeko 4 metro koadrokoa bada. Bada onartzen den beste aukera bat: beste kanpadenda mota bat erabiltzea, baldin eta **denda bakoitzeko pertsona bakarra** sartzen bada eta adinez nagusia bada.

60. G- Zer baldintza bete behar dituzte gazteendako aterpetxeek eta antzekoek?

E- Baimendutako **gehieneko edukiera % 75** izanen da

- Establezimenduaren **arduradunek antolamendu neurri batzuk** ezarriko dituzte, pilaketak saihesteko eta barnealdean pertsonen arteko segurtasun-tartea gordetzen saiatzeko.
- Jatetxe edo ostalaritzako zerbitzu motaren bat ematen bada, zerbitzu hori bat etorriko da sektore horretarako ezarritako baldintzekin.

Haur eta gazteendako denbora libreko jarduerak

61. G- Haur eta gazteendako denbora libreko jarduerak egin daitezke?

E- Bai, baldin horiek egin bitartean behar diren neurriak hartzen badira pertsonen arteko segurtasun-tartea gordetzeko, edo, bestela, maskarak erabiltzen badira. Gainera, Osasun Departamentuak ezarritako beste gomendioak ere bete beharko dira, halakoak ezartzen dituenean.

62. G- Zer baldintza bete behar dituzte haur eta gazteendako denbora libreko jarduerak?

E-

- **Jarduerak aire zabalean** egiten direnean, parte-hartzaileen kopurua **mugatu** beharko da **jardueraren ohiko gehieneko edukieraren %75**era, eta gehenez ere **250 lagunek** parte hartzen ahalko dute, monitoreak barne.
- Jarduerak **toki itxietan** egiten direnean, parte-hartzaileen kopurua mugatu beharko da esparruaren gehieneko edukieraren **% 60**era, eta gehenez ere **200 lagunek** parte hartzen ahalko dute, monitoreak barne.
- Instalazioen edo espazio erabilgarriaren arabera, jarduera bat baino gehiago egiten ahalko da, ongi bereizitako espaziotan.
- Jarduerak egitean, parte-hartzaileak **bizikidetza egonkorreko taldetan antolatuko dira, eta gehenez ere 15 parte-hartzaile onartuko dira, 12 urtetik beherakoak badira, eta 20 parte-hartzaile, 12 urtetik gorakoak badira.** Bizikidetza egonkorreko talde bakoitzeko, begirale bat egonen da jarduera gainbegiratzen.
- Ahal den neurrian, jarduerak eta interakzioak talde horietako bakoitzeko kideekin izanen dira bakarrik. Bizikidetza egonkorreko bi talderen arteko interakzioa planteatzen ahalko da, batez ere aire zabalean.

Haurren aisialdirako lokalak

63. G- Zer baldintza bete behar dituzte haurren aisialdirako lokalek eta horietan gauzatzen den jarduerak?

E- Programatutako ekitaldietan **talde egonkorren edo burbuila taldeen printzipioa** errespetatuko da.

- **Eskuen eta gainazalen higiene neurri zorrotzak** aplikatuko dira, eta bermatuko da lokalak **aireztapen baldintza egokiak** mantentzen dituela.
- Jendeak ukitzen dituen elementu eta espazio guzti-guztiak maizago **garbitu eta desinfektatuko dira**. Ezin bada bermatu behar bezala desinfektatzen direla, ezin izanen dira erabili.

64. G- Zer baldintza hartu behar dira kontuan horietan gauzatzen diren jardueretan?

E- Gauzatutako jarduerak honako baldintza hauek bete behar ditu:

- **Debekatuta dago bola-kaiola motako haurrentako atrakzioa.**
- **Gaztelu puzgarrien** motatako atrakzioetan, **edukiera** haur jolastokiaren azaleraren **3 metro koadrokoa izanen da haur bakoitzeko, eta gehienez 6 hurrek osatutako taldeak** baimentzen dira, ahal dela bizikideak edo antzekoak.
- **Sei urtetik gorako hurrek maskara** jantziko dute lokalean sartzean, eta etengabe erabiliko dute, jateko eta/edo edateko unean izan ezik; izan ere, maskara kentzen ahalko dute jateko eta/edo edateko unean, ezinbesteko denboran.
- Ostalaritzako zerbitzua badago, horri aplikatu beharreko araudia beteko da.

Hurtzaindegiak

65. G- Irekita al daude hurtzaindegiak?

E- Bai. Jardueran aritzen ahal dira baldin eta betetzen badituzte eskatutako prebentzio neurriak.

Jarduera betetzeko prebentzio eta antolaketa protokolo bat izanen dute, orain arte onetsitako osasun gomendioak bilduko dituen.

Bingoak, eta joko-, apustu- eta jolas-aretoak

66. G- Bingoek, joko-, apustu- eta jolas-aretoek ireki dezakete?

E- Bai

Beren jarduera gauzaten ahalko dute, baldin eta **baimendutako gehieneko edukieraren % 60** gainditzen ez bada.

- **01:00ean** itxi beharko dute beranduenez.
- Establezimenduen ate nagusietan, bai barrualdean, bai kanpoaldean, **kartelak** jarri beharko dira, gutxienez ere DIN A3 tamainakoak, eta horietan adierazi beharko dira lokalaren gehieneko edukiera eta foru agindu honek baimentzen duena.
- Edatekoak edo jatekoak emateko zerbitzua baldin badute, bezeroendako soilik, sektore horretarako arau berariazkoak aplikatuko zaizkie.

Kalejirak

67. G- Kalejirak antola daitezke?

E- Ez da segizioa duen kalejirarik baimenduko.

Azoketako atrakzioak

68. G- Zer baldintza orokor bete behar dituzte azoketako atrakzioek?

E- Atrakzioaren **instalazioaren eremua mugatu** behar da, horretarako bakarrik erabiltzeko moduan. Horrela, edukierak eta sarbideak kontrolatzen ahalko dira.

- Bezeroei jakinaraziko zaie **sartzeko eta irteteko bideak** zeintzuk diren. Horiek bereizita egonen dira, pertsonen joan-etorri zuzena bermatzeko eta pilaketak saihesteko.
- **Saltokietan**, lurrean **markatuko da nondik den sarbidea**, eta jende pilaketak saihestuko dira.
- **Atrakzio eta saltoki bakoitzak kartelak** jarriko ditu bezeroen begi bistan, erabilera arauen, edukieraren, sarreren eta irteeren eta segurtasun-tartearen inguruko informazioa bilduko dutenak. Halaber, **gel hidroalkoholikoa** jarriko du haien eskura.
- Eremu osoan **maskara erabili beharko da**.

- Kontaktu handieneko guneak **maiz garbituko dira**: barra eusleak, ateetako eskutokiak edo bolanteak, salmahaiak eta mahaiak, **gutxienez egunean hirutan**. Egunero, itxi ondoren, erabateko desinfekzioa egin behar da.
- Langile guztiei jakinarazi behar zaie atrakzioak martxan dauden bitartean zeintzuk diren COVID-19aren gaineko prebentzio eta higiene neurriak.
- Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioak azoka eremuetarako eta azoketako atrakzioetarako ezarritako jardunbide egokien protokolo eta gidaliburuan jasotakoa beteko da.
- **Jatetxe zerbitzurik** badago, **behar bezala zedarritutako eremu batean** jarri beharko da, atrakzioen eremutik bereizita, eta zerbitzu hori emateko ezartzen diren baldintzak bete beharko dira.

69. G- Zer edukiera errespetatu behar dute azoketako atrakzioek?

E- Atrakzioen edukiera kalkulatzeko, **gutxienez 1,5 metroko urruntze fisikoa** bermatuko da bezeroen artean.

Atrakzio motaren arabera, urruntze fisikoa ondoko modu hauetan bermatuko da:

- **Autoen atrakzioak: Ilara eta/edo gurutzatu bakoitzeko haur bat**, gutxienez **1,5 metroko distantzia** bermatzeko, bizikideak direnean izan ezik.
- Ilaradun **bagoien atrakzioak**: Lekuen antolaketaren arabera, **ilara eta/edo gurutzatu bakoitzeko haur bat**, gutxienez **1,5 metroko distantzia** bermatzeko, bizikideak direnean izan ezik.
- **Zirkulazio askeko atrakzioak**: Edukiera mugatuko da, gutxienez **1,5 metroko urruntzea dagoela** bermatzeko.
- **Ohe elastikoaren motatako atrakzioetan bezero bakarra** aritzen ahalko da, **salbu eta bizikideak badira**.
- **Gaztelu puzgarrien gisako haurrentzako atrakzioetan**, haur jolastokiaren azaleraren **hiru metro koadroko haur batekoa** izanen da edukiera, eta **gehienez 6 hurrez osatutako taldeak baimentzen dira**, ahal dela bizikideak edo antzekoak. Talde bakoitzak erabili ondoren, **garbitu** beharko da.

- Ez da baimenduko bola-kaiola motako jarduerarik haurrentako atrakzioetan.

Zezen plaza, esparru eta instalazioen jarduera

70. G- Zezen ikuskizunik egitea baimenduko da?

E- Zezen ikuskizunak baimenduta egonen dira, bakar-bakarrik, zezen plaza gisa gaitutako lekuetan eta zezen plaza ez-iraunkor gisa gaitutakoetan, 249/1992 Foru Dekretuaren arabera (haren bidez, zezen ikuskizunen gaineko erregelamendua onetsi zen) eta uztailearen 4ko 183/1997 Foru Dekretuaren arabera (haren bidez, zezen plaza eramangarriak baimentzeko araubidea ezarri zen), baita instalazio baliokideetan ere, baldin eta bermatzen badute:

- Adierazitako toki guztietan zezen ikuskizunak egiteko, **memoria edo protokolo bat** izan beharko da, aplikatu beharreko araudia betetzeko baldintzak azaltzeko.
- Enpresa antolatzaileak izanen du ardura, baimenean jasoriko mugak une oro betetzen direla kontrolatzeko.
- Kasu guztietan, **aldez aurretik esleitutako eserlekuak** izanen dituzte leku horiek, eta ezin izanen da **baimendutako gehieneko edukieraren ehuneko hirurogeita hamabost gainditu**. Nolanahi ere, behar diren neurriak ezarriko dira instalazioetan pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea gordetzeko edo, bestela, babes fisikorako beste neurri batzuk erabiliko dira, maskara janztea ekarriko dutenak.
- **800 pertsonarentzako edukiera gaindituz gero**, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren **txosten nahitaezko eta loteslea beharko da**.

Ez da baimentzen zezen ikuskizun herrikoiak egitea, hala nola entzierroak, entzierro txikiak, basabereak libratzea edo antzekoak bide publikoan.

Herri bazkariak

71. G- Zer baldintza bete behar dira herri bazkariak egiteko?

E- Ez dago baimenduta herri bazkariak egitea.

Adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzak

72. G- Indarrean jarraitzen du adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetara bisitan joateko aukerak?

E- Bai. Ahaideendako informazio guztia eta ohiko galderak hemen:

- <https://www.navarra.es/eu/adinekoak-edo-desgaitasuna-duten-pertsonak-egoitzetan-dituzten-familientzako-informazioa>